

HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO NEGOIAZIO-MAHAIAREN AKTA

Eguna: 2026ko uztailaren 28a

Ordua: 14:00

Lekua: Lakua II-ko R2 gelan

GAI-ZERREDA:

1. Aurreko bileraren akta onartze, hala badagokio
2. Udal haurreskolen integrazioak
3. Norberak lekarkeena

PARTE HARTZEN DUTE:

- **Haurreskolak Partzuergotik:**
 - Eugenio Jiménez Ibáñez, Haurreskolak Partzuergoko Gerentearen zuzendaritza eginkizunetan eta Zuzendaritza Batzordeko kide gisa.
 - Martin Gartzandia Gartzandia, Araubide Juridikoko eta Zerbitzuetako zuzendaria, aholkulari gisa.
 - Idazkari lanetan: Begoña Barranco López.
- **Sindikatu enaldietatik:**
 - **LAB:** Enara Hernández Herba, Hiart Cabrera Ansola, Iratxe Belarrinaga Larrabide.
 - **STEILAS:** Aintzane Gil Bragado, Oihana Sáez de Castillo Busto, Maider Beristain Fernández.
 - **ELA:** Iratxe Irigoin Angulo, Mikel Uranga (aholkulari gisa)

Udal haur eskolen integrazioa dela-eta, Haurreskolak Partzuergoak, LAB sindikatuak eta STEILAS sindikatuak honako hau

ADOSTU DUTE:

"Subrogazio eskubiderik ez duten eta integratzen diren haur eskoletan lanean ari diren hezitzaileak LEParteko bezala kontratatzea, Partzuergoko lan-hitzarmenak finkatzen dituen lan-baldintzekin.

Udal haur eskola batetan lanean ari diren karrerako funtzionarioen kasuan, hezitzaile hauek udalean eszedentzia hartu ahal izatea eta Haurreskolak Partzuergoan udal haur eskola integratzen denean ordura arte betetzen dituzten lanpostuetan lanean jarraitu ahal izan dezaten, Partzuergoko lan-hitzarmenak finkatzen dituen lan-baldintzekin.

- Lanpostu horiek ez dira Haurreskolak Partzuergoan egingo diren Lan Eskaintza Publikoetan edo Lekualdatze Lehiaketetan aterako. Formula hau istorikoen kasuan adostu zen jada. Hezitzaile hauek gaur egun betetzen dituzten lanpostuetan jubilatuta arte edo haien lan-harremana bukatuta arte (erretiroa, borondatez uztea, eta abar) jarraituko dute. Haurreskolak Partzuergoan LEP arteko kontratu batekin egongo dira, hutsik dagoen lanpostuaren lan-legepeko bitarteko kontratuarekin.
- Haurreskolak Partzuergoan integratuko diren udal haur eskola batetan **bakante batean lanean ari diren bitarteko hezitzaileen** kasuan, hutsik dauden eta integratu aurretik betetzen zituzten lanpostuetan lan-legepeko bitarteko kontratua egingo zaie, LEP arteko kontratua, alegia. Lanpostu horiek ez dira, ikasturte batez, ez lekualdatze lehiaketara, ezta oposizioetara aterako, hau da, 2026ko irailaren 1ean integratzen diren haur eskoletako lanpostuak ez dira 26/27 ikasturtean lekualdatzean edota oposizioan aterako, 27/28 ikasturteko deialdietan aterako dira. Integrazioak diren heinean, langile hauen baremazio baldintzak Haurreskolak Partzuergoan ordezkartza duten sindikatuarekin aztertuko dira eta gehiengoarekin adostuko dira 2026/2027 ikasturtean zehar.

Subrogatutako langileak eta lekualdatze lehiaketa

- Integratuko diren haur eskoletako hezitzaile subrogatu guztiei Haurreskolak Partzuergoko lan-hitzarmena bere osotasunean hezitzaile hauei aplikagarri egiteko Lekualdatze Lehiaketan parte hartzeko aukera ematea Haurreskolak Partzuergoan ordezkartza duten sindikatuarekin aztertuko da eta gehiengoarekin adostuko da 2026/2027 ikasturtean zehar."

Bilera 14:15etan amaitu da. Horri buruzko akta hau egin da eta, horrekin bat datozela adierazteko, akordio-egileek sinatu egin dute.

LAB
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA


steilas
www.steilas.eus


Haurreskolak